

**ZABOR BILKETAKO ZERBITZU PUBLIKOAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA****I- XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoari jarraituz, ordenantza honen arabera udalak zaborrak biltzekozerbitzuairengatik kobratu beharreko tasa ezarri eta eskatuko du. Ezarri beharreko tarifak eta tarifa horiek ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

**2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

**II- ZERGA GAIA****3. artikulua**

Tasaren zerga gaia zaborra eta hiri hondakin solidoak biltzekozerbitzuaeskaintzea da. Zabor bilketa honako leku hauetan egingo da: jarduera industrialak, merkataritzakoak, profesionalak, artistikoak eta zerbitzuetakoak egiten diren etxebizitzetan, ostatueta eta lokaletan edo establezimenduetan.

**III- SUBJEKTU PASIBOA****4. artikulua**

1- Subjektu pasibo zergadunak dira Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzuaeskaintzen den lekuetan, plazetan, kaleetan edo bide publikoetan dauden etxebizitzak eta lokalak okupatzen edo erabiltzen badituzte, direla horien jabe, gozamedun edo prekarioko erabiltzaile.

2- Dena dela, zergadunaren ordezkio subjektu pasiboa izango da etxebizitza edo lokalaren jabea, eta horrek, hala badagokio, ordaindutako higiezinaren kuotak haien erabiltzaileei ordainarazi ahal izango dizkie, horiek izanik zerbitzuaren onuradunak.

**IV- ZERGA OINARRIA****5. artikulua**

Zerga oinarria osatzen dute zerbitzua gauzatzen den unitateetako bakoitza, tarifyan ezarritako baldintzen arabera.

**V- KUOTA****6. artikulua**

Kuota zehazteko, aurreko artikuluen arabera ateratzen den oinarriari aplikatuko zaio dagokion tarifa, eranskinean jasotako artetik.

**VI- SORTZAPENA**

**7. artikulua**

Zerbitzua eskaintzen den unetik bertatik sortzen da zorra eta, beraz, tasa ordaintzeko betebeharra. Zerbitzua nahitaez eskaini behar denez gero, zergadunek erabili eta tasa ordaindu behar duten etxe eta lokalak dauden kale edo tokietan zaborra biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta abian den unetik bertatik ordaindu beharko dute.

**VII- ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK****8. artikulua**

Zerga arau-hausteen kalifikazioari buruzko guztian, bai eta kasu bakoitzean arau-hauste horiei dagozkien zigorren kalifikazioan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

**VIII- AZKEN XEDAPENA**

Zerga ordenantza hau eta bere eranskinak 2018ko urtarrilaren 25ean onartu ziren, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, harik eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

**I. ERANSKINA****2024KO TARIFAK**

Epigrafea	TasaK 2024
Etxebizitzetako zaborrak (udalerriko gainontzeko lekuak)	101,94 €
Etxebizitzetako zaborrak (Luiaondo eta Arespalditza)	126,93 €
Saltokietako zaborrak; jatetxeak, tabernak, hotelak edo erresidentziak ez diren lokaletakoak	187,15 €
Jatetxeetako, tabernetako, hoteletako eta erresidentzietako zaborrak	686,22 €
Landetxeetako, landa apartamenduetako, eta abarretako zaborrak	249,54 €
1000 m2 arteko enpresetako zaborrak	745,56 €
1000 m2 baino gehiagoko enpresetako zaborrak	1.187,92 €

**DIRUBILKETA ALDIA:**

- Urteko azken hiruhilekoa.

**II. ERANSKINA**

2024tik (hori barne) aurrera eta urtero eguneratu egingo dira I. eranskinean jasotako tarifak, KPIa handitzen den heinean. Hala ere, etorkizunean tarifak aldatu egin daitezke zerbitzuaren beharrak direla eta.

Eranskin horien aldaketa hasiera batean onetsi zuen Udal honek, 2023ko urriaren 19an eginiko ohiko osoko bilkuran, eta 30 eguneko epean jarri zen jendaurrean iragarki oholean eta ALHAOn, urriaren 1eko 128 zenbakian. Behin betiko onetsia izan da 2023ko abenduaren 15ean. Indarrean sartuko da 2024ko urtarrilaren 1ean edo ALHAOn osorik argitaratu eta biharamunean, baldin eta 2023ko abenduaren 31 baino geroagokoa bada, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea onartzen ez den bitartean.